



MAIATZAREN LEHENA

Greba orokorrera igotzeko kanpamentu basea

Maiatzaren Lehenaren 123. urteurrena iaz mundu osoan piztu zen krisialdi ekonomikoaren ondorio sozialek eta ekonomikoek baldintzatuko dute. Maiatzaren 1a beste urrats bat izango da sindikatu abertzaleek, enpleguaren alde, maiatzaren 21erako deitutako greba orokorrera bidean.

DANIEL UDALAITZ

ASTE HONETAN mundu osoan ospatu den Maiatzaren Lehenaren 123. urteurrena, zalantzarik gabe, iragan urtean ia mundu osoan zabaldu zen krisialdi finantzarioaren ondorio ekonomiko eta sozialek baldintzatuko dute. Euskal Herrian, azken urteotan, egun hori jaieguna izan da,

errebindikazio eguna baino. Oraingoan, aldiz, gauzak aldatuko direla dirudi, hau da, jaiegun hutsa izateari utziko dio, eta krisialdiaren konponbideak errebindikatzeko eta, batez ere, enplegu duina defendatzeko eta langabeziaren nahiz prekarietate basatiaren aurkako eguna izango da.

Horrez gain, sindikatu abertzaleek (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK) maiatzaren 21erako deitutako greba orokorrera bidean beste urrats bat izango da. Greba horren helburua enplegua defendatzea eta krisia lan harremanak are gehiago hondatze-

1886tik 2009ra

Datorren ostiralean Maiatzaren Lehena ospatuko da mundu osoan. Urteurren honek 1886ko maiatzaren 1ean du jatorria. Egun hartan, Ameriketako Estatu Batuetan greba orokorra burutu zuten zortzi orduko lanaldiaren alde, 18 ordu edo gehiago lan egin ohi baitzuten. Matxinadaren buru Chicago izan zen, etorkin asko jaso zituen hiria —errusiarrek, poloniarrek, irlandarrak, alemanak, frantziarrak...—. Poliziak gogor zapaldu zuten mobilizazioa, grebalari asko tiroz hiltzeraino. Kaos betean, ustez poliziaren aurka jaurtitako bonbak eztanda egin zuten eta polizia bat hil zen. “Haymarket-eko atentatua” deritzon gertaera horren ondorioz, sei langile atxilotu eta epaitu zituzten, baina ez zuten inoiz frogatu errudun zirenik. Sei langileei “Chicagoko martiriak” izena eman zitzaion. Sei langileak urkamen-



Atxilo anarkista eskua gora duela poliziak erretratua ateratzera behartzen duen unean. Irudi honekin Chicagoko 1886an gertatutakoa azaldu nahi izan zuen *La Ilustración* egunkariak.

dian hiltzera kondenatu zituzten, horietako biri heriotza zigorra kommutatu eta, horren ordez, betirako bortxazko lanetara kondenatu arren. Parisen, 1889ko uztailearen 20an, Bigarren Internazionalaren Kongresu Konstituzionalaren amaieran, 1890eko maiatzaren 1etik aurrera Lanaren Eguna ospatzea erabaki zuten, zortzi orduko lanaldia eskatuko zuten herrialde guztietako manifestazioak burutzeko eta Chicagoko gertaerak oroitzeko. Joan den mendean zehar, egun hau askotan ospatu zen eta, beste askotan, zapaldua izan zen, hala nola Espainiako Estatuan Francoren diktadura bitartean. Egun, 2009an, egoera bestelakoa da. Hala ere, iaz azaleratutako krisialdi ekonomikoak langabetu, hipotekatu zein prekario kopuru larriak eragin ditu, eta horrek guztiak aurretik sumatu ezin diren ondorioak ekar ditzake.


ko baliatu nahi duen patronalaren xantaiaren aurka egitea da.

Hego Euskal Herrian, Maiatzaren Lehenaren aurretik, sindikatu bakoitzak mobilizazio bereziak burutu ditu. Ipar Euskal Herrian, berriz, mobilizazioak bateratuagoak izan dira, Frantziako Estatu osoan

Hego Euskal Herrian sindikatu abertzaleen eta estatuko enpresen zatiketari eutsiko zaio. Iparraldean, badirudi batasun handiagoa izango dela

bezalaxe, bi greba egun burutu dituzte frantziar gobernuaren politika ekonomikoaren aurka, bata urtarrilean eta bestea martxoan. Orain, Maiatzaren Lehen honetako mobilizazioak nolakoak diren ikusi beharko da. Ziur aski Hego Euskal Herrian sindikatu abertzaleen eta

Langabeziaren bilakaera Hego Euskal Herrian



	Denera	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Otsaila	153.032	17.506	63.512	34.635	37.379
Martxo	159.402	18.242	66.501	36.347	38.311
Diferentzia	+6.369	+736	+2.989	+1.712	+932

Hitzarmen kolektiboen negoiazioa enpresen eta langileen arteko desadostasunerako beste arrazoi bat bihurtu da eta horrek beste zenbait protesta eta greba eragingo ditu

estatuko sindikatuen arteko zatiketari eutsiko zaio. Eta badirudi Ipar Euskal Herrian batasun handiagoa izango dela.

EEEak, enpresak ixtea, eta arrapaladako langabezia

Euskal Herrian lan egoera gaitza da: batetik, enpresa asko ixten ari dira, bereziki enpresa txikiak, ertainak eta autonomoen enpresak; bestetik, enplegua erregulatzeko espedienteak (EEE) daude, batez ere aldi baterako enplegua eteteko espedienteak, orotariko enpresetan. Kontsumoak asko jaitsi denez, industriaren ekoizpenak pixkanaka behera egin du eta, ondorioz, langabezia eragin du. INEMen datu ofizialen arabera, martxoan Hego Euskal Herrian langabetuak 159.401 izatera heldu ziren, duela urtebete baino 53.227 gehiago (ondoko orrialdeko taulan ikus daiteke).

Iparraldean, datu ofizial banakaturik ezean, Pirinio Atlantikoen datuak hartuko ditugu kontuan, euskal lurraldea departamendu horren barruan baitago: otsailean, langabeziak 20.000 pertsonatan egin zuen gora. Eta dagoeneko enpresen itxierak, hala nola Hazparneko Aplacan, eta pertsonalaren murrizketak, esaterako, Novotransen (% 30 langile gutxiago), iragarri dituzte. Hegoaldean nahiz Iparraldean, sektore kaltetuenak emakumezkoak, gazteak eta etorkinak dira; azken talde horretan prekaritate erabatekoa da.

Testuinguru honetan, Euskal Herrian pobrezia 100.000 pertsonari baino gehiagori eragiten diela nabarmendu behar da (EAEen soilik, ELAren arabera, 86.000 pobre daude dagoeneko). Eta etorkizuneko langa-



LUIS JAUREGIALIZO/ARGAZKI PRESS

Langile batzuen parodia iazko Maiatzaren Leheneko manifestazio batean.

Sindikatuak ekitaldiak

Maiatzaren Leheneko mobilizazioen aldarrikapen nagusietako enpleguarena izango da aurten. Langabezia arazo gaitza bihurtzen ari da jendartearen, baina hala ere, sindikatu nagusiek bananduta egingo dituzte beren protestak.

LAB sindikatuak *Langileen borrokaz: Euskal Herrian aldaketa* lelopean manifestazioak egingo ditu Gasteizen, Bilbon, Donostian, Iruñean, Baionan eta Maulen. ELAK mobilizazio bakarrean zentratuko du protesta Bilbon (*Borroka bidean*) eta ondoren lagunarteko bazkaria antolatu du Barakaldoko BECen. CC00ek manifestazioak

iragarri ditu hiriburuetan *Zure eskubideak dira, langileok borrokara!* leloarekin, eta berdin UGTk *Enpleguaren alde* aldarria astinduz. Azkeneko honek, Nafarroan, Erriberri egingo du ekitaldi nagusia. ESK sindikatuak ere mobilizazioak iragarri ditu Iruñean eta Tuteran, besteak beste. Iparraldeko sindikatuek Baionan dute hitzordu nagusia

Hilaren 21eko greba deitu dutenek Maiatzaren Lehena baliatuko dute lanuztearen arrazoiak errebindikatzeko; Langilearen Egunerako sortutako afixak horren erakusgarri dira.

Urko Apaolaza

beziaren aurreikuspenak oso kezagarriak dira. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, “mundu osoan 231 milioi langabetu egon daitezke 2009an, 2007an baino 52 milioi gehiago”.

Patronalaren xantaia

Bestalde, patronalak krisi egoera baliatzen ari dira mahai gainean soldaten izozketak eta lanpostuen murrizketak ipintzeko, eta xantaia egiten dute, soldaten izozketa eta lanpostuen murrizketa onartu ezean, enpresaren behin-behineko ixtarekin mehatxatuz. Hitzarmen kolektiboen negoziazioa enpresen eta langileen arteko desadostasun-

nerako beste arrazoi bat bihurtu da eta horrek beste zenbait protesta eta greba eragingo ditu hainbat sektoretan.

Krisialdiari aurre egiteko, Hegoaldean banakoen enpresak eta hainbat sindikatutako ordezkariak mobilizatu dira. Iparraldean, aldiz, aurten dagoeneko bi greba orokor burutu dira, urtarrilean eta martxoan, biak estatu mailako ia sindikatu guztiek batera deituak. Orain, Maiatzaren Lehenaren karira, hainbat manifestazio aurreikusten dira Euskal Herri osoan. Hala ere, bereziki Hego Euskal Herrian, sindikatuen arteko zatiketa protagonista izango da berriro. ■